

« Xiberoko Gaü Eskolan, arraheinki alfabetatze kurtso emaileak ohartü gira gramatikaz, llabür bazen llabür, zerbait eskülibürüren behar gorria günüala, hots nornahiren esküetan ezar ginirokean lan baten beharra. Hortako, gramatika doi bat barnatü düenak eta ordinagailüa ontsa menperatzen düenak gramatika llabür honen agertzeko bildü gira.

Aitzinetik ere zübereraz zerbait arrenküra züenak gure mintzajea ikasirik eta hedatürük izan zedin lan hanitx eginik izan da. Huna ezagüenenen izen zonbait:

- **1858** urtean **Emmanüel Intxauspe** kalonjearen “Le verbe basque“
- **1868**an **Archüren** “Bi mihiren gramatika“
- **1873**an **L. Gezeren** “Eléments de grammaire basque, dialecte souletin »
- **1939**an **Jean Larrasquet** linguistaren « Le basque de la Basse-Soule orientale »,
  
- Ber denboraxean agertü zen ere Fenaille Mizpiratzegiren «Hiztegi eskuara-frantsesez», gramatika zati batekin.
- Berrikiago agertü dira ere:
- Junes Epherre'ren** « Le verbe basque » Intxauspe-ren lanetik abiatüz, hau roneotipoan elki zen.
- **Jean-Louis Davantek** aditzaz egin taula lüzaz baliatü dügü Gaü Eskolan .
- Gero **Junes Casenave Harigileren** :  
«Xiberoan eüskaraz » metodoa:  
eta bereziki« Eüskara- frantses » hiztegiko aditzaz den zatia ütürri üken dügü.

Erran gabe doa, egün agertzen dügün gramatika hontan ez dügüla gaüza handirik barnatü, eüskara monumentü eder honen eremüa, dakizüen bezala, zinez zabal beita. Ez gira ere aipatü dütügün idazle hauen hein edo mailan jarten, baizik gure hullan diren ikasleer eskülibürü simple eta erabilgarri bat eskentü nahi geneien. Aipatü lan hoik oro esküetan ükeitez, doi-doia erran dügün bezala, güti edo hanitx baliatü dütügü eta bereziki Emmanuel Intxausperen “Le verbe basque“ delakoa.

Aditzaren aurkezteko, eüskara batuan erabili hertaula eta ezkemak baliatü dütügü erkatze edo konparaketak aiseago eginik izan ditean, ezi ohartü gira ere, xiberotarrek, bai batuari, bai beste mintzadarrer lotzeko nekezia badügüla, eta gisa horrez nahi günüke Eüskal Herriko eüskalkien arteko zübia bi aldeetarat erabilirik izan dadin.

Euskaltzaindiaren erabakiak, ortografian eta beste, tipilki gure egin dütügü, haien lan izigarrian bermatü gira, Xiberotar garbizale edo püristek nahi düena pentsa edo erran dezaen.

Eta holaxe, ber Euskaltzaindi hau bihotz-bihotzetik, taldearen izenean, eskertü nahi düt gure lanaren agerrazteko eta zabaltzeko ardüra hartü beitü.

Bena ere ürrentzeko, beste hein batean, gure talde honek ez dütü Xiberoko Gaü Eskola Laminak-eko langileak ahatze behar: aholkü ekarri deiküe, beren geletan batzarri goxoa üken dügü,... hurak ere eskertürük izan diteala !

Eta besterik gabe:

Riu ! Rau ! JO AITZINA EÜSKARAZ !

*Jüje Etxebarne*